



SEGMENTAZIOA

Xede publikoa

Hasieran, gure enpresak ekoiztuko dituen produktuak zuzenduta egongo dira arropa saltzen duten multinazionaleri. Hain zuzen ere, Decathloni, Forum Sporteri eta Intersporteri. Hauek hainbat ekintza egiten dituzte naturarekin lotuta, adibidez:

- Decathlonek naturaren aldeko kanpaina ugari ditu.
- Intersportek biosfera zaintzeko mugimendutan parte hartzen du.
- Forum Sportek ingurumenaren alde zenbait ekintza antolatzen ditu.



Zuzendariekin batu ondoren, beren dendetan gure produktuak saltzeko prest daudela esan digute. Alde batetik, ingurumena laguntzeko interes handia dutelako eta bestetik, beren markaK ospe hobe izango duela uste dutelako.



Ondoren, jada gure marka ezaguna denean denda fisikoaz eta webgunetaz baliatuko gara gure ekoiztako produktuak saltzeko. Hor, edonork eros ditzake, baina gehienbat gazteei zuzenduta dago, nagusiki hauek baitaude kutsaduraren gaiarekin kontzientziatutago.



Kokapenaren inguruan, denda fisikoak irekitzean, irletan eta kosta herrietan jarriko genituzke, haiek baitira hainbat ikerketak adierazten duten bezala jende kontzientziatu gehien dauden lekua.

